



Arartekoaren 2018R-719-16 Ebazpena, 2018ko ekainaren 13koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio, guraso bakarreko familia bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eteteko erabakia mantentzea berrikus dezala, bai eta ordaindutako prestazio guztiak erreklamatzeko ere ordenamendu juridikoarekin bat ez etortzeagatik.

Aurrekariak

1. Pertsona batek kexa bat aurkeztu du Arartekoan, eta haren arrazoia Lanbidek emandako ebazpen bat da; haren bidez, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren etenaldiarekin jarraitzea erabaki da.

Kexagileak guraso bakarreko familia bat osatzen du, eta kexa aurkeztu zuenean 13 urteko adingabe bat zuen ardurapean. Duela 12 urte banandu zen semearen aitarengandik, eta ez zuen inolako harremanik harekin. Gainera, adinez nagusia zen beste seme batekin bizi zen, eta haren gurasoetako bat hilik zegoen.

2015eko irailean, Lanbidek, entzuteko izapide baten bidez, judizialki hitzartutako gurasoen eta seme-alaben arteko neurriak jaso dituen epaia aurkeztu behar zuela adierazi zion. Honako hau ere komunikatu zion: ez duela DSBE/EPO jasotzeko eskubiderik izango aurreko neurriak berretsi dituen epai judiziala aurkeztu artean.

Kexagileak arrazoibideen izapideari erantzun zion adieraziz 2013an demanda jarri zuela aitaren aurka, baina epaiketak ez zuela aurrera egin demandatuari jakinarazpenak bidaltzeko bizilekurik adierazi ez zelako. 2015eko ekainaren 10ean, berriro gauzatu zuen demanda, eta egindako izapideen berri eman zion Lanbideri.

Lanbidek, 2015eko azaroaren 21eko ebazpenaren bidez, egungo etete-egoerari eustea erabaki zuen, egokitu lekiokkeen eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliarazteko betebeharra bete ez zuela iritzita. Zehazki, bertan adierazi zen ez zuela diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubiderik izango ezkontzatik kanpoko seme-alabenganako neurriak berresten zituen epai judiziala aurkeztu artean. Gainera, ebazpenean adierazi zen ez zela onartzen berriro ere prozedura judiziala hasi izana, aurretik egin zuen moduan, ondo bideratu gabe. Lanbidek prestazioa eskuratzeko doako justiziaren eskaera ez zuen jadanik soilik onartzen ebazpen judiziala emateko zain.

Kexagileak aukerako berraztertze errekurtsoa jarri zuen aipatu ebazpenaren aurrean, eta bertan adierazi zuen prestaziorako eskubidea etete-egoeran





edukitzea erabaki aurretik jakinarazi ziola Lanbideri epaiketaren data, eta, bestetik, epaia idatzi zela 2015eko abenduaren 11n, eta, horren bidez, haurraren zaintza egotzi zaiola berari, eta ezin izan dela aitaren kargura ezarri mantenu-pentsioa. Era berean, berriro eskatu zuen prestazioak berrabiarazteko, 2015eko abenduaren 23an.

Lanbidek, 2018ko martxoaren 18ko ebazpenean, etete-egoerari eustea erabaki zuen berriro ere, funtsean, aurkeztutako epaian adierazi delako alde eragileak ezin izan duela demandatua epaiketara deitzea lortu.

2. Arartekoak, kexa izapidetzeko onartuta, gertakari horiei buruzko informazioa eskatu zuen eta alde aurretik zenbait gogoeta helarazi zituen; horiek ez errepikatzearren, geroago azalduko ditugu.
3. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak Lanbideko zuzendari nagusiak egindako txostenaren bidez erantzun dio erakunde honi.

Txosten horretan azaltzen denez, 2013an interesdunak Gasteizko Lehen Auzialdiko 8. Epaitegian eskatu zuen ezkontzaz kanpoko seme-alabei buruzko zegozkion neurriak ezartzea haurren aitari. Akzio hori 2013ko abenduaren 18ko 557/2013 autoaren bidez amaitu zen. Auto horrek adierazi zuen ez zela onartu aurkeztutako demanda izapidetzea, auzi-jartzaileak ez zituelako zuzendu epaitegiak adierazitako akatsak; zehazki, ez zion epaitegiari lagundu demandatua aurkitzen. Horren guztiaren ondorioz, 2015eko otsailean diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea eten zitzaion interesdunari, alabaren balizko mantenu-eskubidea ez baliarazteagatik.

Etete horren ostean, 2015eko ekainaren 10ean, ezkontzaz kanpoko seme-alabei buruzko neurriak eskatzeko beste demanda bat jarri omen zuen. Epaitegiak alderdiei dei egin zion 2015eko azaroaren 30ean bista egiteko. Lanbideren ustez, egiaztatu da errekurritutako ebazpena eman zen egunean errekurtsio-jartzaileak ez zuela artean mantenu-pentsioari buruzko epairik, azaroaren 21ean eman baitzen ebazpena.

Jarraian, txostenean hauxe adierazten da: *"...berraztertzeako errekurtsioa aurkeztu zuen, eta azaroan egindako bistan emandako epaia aurkeztu zuen. Epai horren bidez aitaren kontura mantenu-pentsioa ezartzea gaitzetsi zen, amari egozgarria den portaeragatik. Epai hori kontuan hartu da 2016/REV/021650 espedientearen, eteteari eusteko ebazpena eman da, eta ez da inolaz ere aldatzen ebazpen honen emaitza. Izan ere, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak 12.1.b letran ezarritakoari jarraituz, eskubidearen titularraren betebeharra da*





"Titularrari edo bizikidetz-unitateko edozein kideri legokiokeen eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliatzea, prestazioak irauten duen aldi osoan".

Erantzunean, gainera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpena erantsi zuen; haren bidez, 2016ko apirilaren 6ko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenaren aurka aurkeztutako errekurtsioa ezetsi zen.

4. Horren ondoren, 2017ko otsailaren 25eko ebazpenaren bidez, Lanbidek 24.794,03 € itzuli behar duela adierazi du, honako arrazoi honengatik: *"Baldintzak betetzeari utzi dio"*. Zor hori kexagileak 2010. urtetik diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarri gisa jasotako prestazio guztiei dagokie.

Gogoetak

1. Kexagileak guraso bakarreko familia dela justifikatu du, seme adingabe bat duela ardurapean, eta aitak ez diela bere familia-erantzukizunei aurre egin inoiz. Amak adingabeaz arduratu behar izan du harremana eten ondoren, eta migrazio-proiektu bat abiarazi du Gasteizen. Beren oinarritzko beharriari aurre egiteko zailtasunak izatean eta gizarte bazterkeria egoeran, inguruabar zail hori arintzeko aurreikusitako prestazio ekonomikoak eskatu zituen.

Araudiak ezarritako baldintzen artean, eskubide ekonomiko oro baliaraztea aurreikusten da, mantenu-pentsioa, esaterako. Kexagileak mantenu-pentsioa eta bisiten araubidea finkatzeko eskatu zuen bide judizialek. Gasteizko Lehen Auzialdiko 5 zenbakiko Epaitegiak inguruabar bereziak aintzat hartu ditu, adingabearen zaintza eta jagoletza amari esleitu dizkio, eta guraso-ahala biek elkarrekin gauzatzea, nahiz eta ama izendatu adingabeak beharrezkoak dituen administrazio-izapideak egiteko arduradun bakartzat. Halaber, epaian hau esaten da: *"No haber lugar en el momento actual al establecimiento de un régimen de visitas a favor del menor para el padre no custodio, ni al establecimiento de pensión alimenticia a cargo del padre"*.

Epaitegiak iritzi zuen ez zela egokia bisiten araubide bat edo mantenu-pentsioa ezartzea demandatua auzi-ihes egoeran egoteagatik eta Kolonbian duen bizilekuari buruzko informaziorik ez izateagatik.

Epaiaren lehenengo zuzenbide-oinarrian honako hau jasotzen da: *"La parte actora solicita la adopción de medidas personales y patrimoniales respecto del hijo menor (...) nacido en fecha 10 de junio de 2002, fruto de la relación de convivencia que tuvo con el demandado, con quien no prueba que convivió en*





España, sino que manifestó en el acto de la vista que fue ella quien vino aquí en mayo de 2008 con su hijo, y que quedó el padre en Bogotá(...).

...Y respecto de las restantes medidas solicitadas, atendidas las especiales circunstancias concurrentes en el presente supuesto, no procedería estimar la adopción de ninguna otra medida, por cuanto la rebeldía procesal del demandado lo es porque la madre no ha facilitado domicilio alguno del demandado, ni siquiera el último en el que éste quedó residiendo cuando ella se vino a España con su hijo para intentar su emplazamiento, y las posibilidades de que éste siga residiendo en Colombia son suficientes para que la actora, de haberlas querido otorgar efectividad, hubiese instado debidamente las mismas, cuando además las solicita 7 años después sin dar explicaciones y con nulas posibilidades actualmente de hacerlas efectivas, por cuanto hay que insistir en que ésta no facilita información, y nada se sabe del demandado, ni de su situación, ni de su paradero y hasta el día de la fecha ha sido ella quien se ha hecho cargo de todas las necesidades del menor, y no alega ni prueba el motivo de interesarlas en este momento".

2. Arartekoaren ustez, epaiak aitarentzako bisita araubiderik edo horren kargurako mantenu-pentsiorik ezarri ez duela **justifikatzeko xedez aipatu da epaian** ez dagoela adin txikikoaren aitaren bizilekuari buruzko informaziorik. Arrazoi hori dela-eta ez da eskubide ekonomiko bat baliarazi; beraz, diru-sarrerak bermatzeko errentaren/etxebizitzarako prestazio osagarriaren titular izateko baldintza bat galdu da; horrek jasotako prestazioak itzultzea dakar, eta horrez gain, desproporzionatua eta gehiegizkoa da guraso bakarreko familia horren egoerari erreparatzen badiogu.

Bi seme-alabekin, haietako bat adingabea, migrazio-proiektu bat abiarazi duen ama bat da. Bera bakarrik arduratu da seme-alabez, horrek dakarren guztiarekin. Gurasoen eta seme-alaben arteko neurriak bide judizialek eskatzean ukatu egin zaizkio informaziorik ez emateagatik. Erakunde honi ez dagokio ebazpen judizial hori baloratzea, baina beharrezkoa ikusten du hau adieraztea: arrazoiak horrek eragiten diola soilik mantenu-pentsioa edo bisiten araubidea finkatzeari. Espediente honetan argitzen saiatzen da kexagileak jokabide egokia izan duen eskubide ekonomiko bat baliarazteko betebeharra bete duela irizteko.

Arartekoaren aburuz, eskubide ekonomikoa erreklamatzeko bide judizialera jo duen aztertu behar da. Egiatzapen horren ondorioz ikusi da kexagilea bitan ere joan dela eta, beraz, eska daitekeen ardura izan duela betebehari hori bete duela irizteko. Dena den, aitaren bizilekuaren berririk ez zegoenez, hasieran demanda artxibatu egin zen eta, ondoren, epaia eman, aurrez adierazitako eran. Aitaren bizilekua ezagutzeko ahalegin handiagoa egin behar dela





eskatzeko arrazoirik ez dagoela dirudi; izan ere, argi eta garbi geratu zen guraso horrek semea abandonatu egin zuela, eta ez da zentzuzkoa ere amari beste karga bat gehitzea kontuan hartuz bera bakarrik arduratu dela bien semeaz. Diru-sarrerak bermatzeko errentari/etxebizitzarako prestazio osagarriari buruzko araudia aplikatzeko 2014ko abenduko irizpideen dokumentuan (eta 2017ko maiatzeko irizpideen dokumentuan) adierazi da, eskubide hori epaitegian jarritako demanda bidez baliarazten dela. Gainera, Lanbideri prozesuko gorabehera guztien berri emateko eskatzen da.

3. Aldiz, Lanbidek mantenu-pentsioa finkatu ez izana interpretatu du eskubide ekonomiko bat baliarazteko betebeharrak bat bete ez izanaren moduan. Arartekoa balorazio horrekin ez dator bat eta hermeneutikako arauak ez direla behar bezala aplikatu uste du, hau da, arauak interpretatzeko orduan honako hauek aintzat hartzea eskatzen dute: hitzen beraien zentzuaz gain, aplikatu behar diren denboraren testuingurua eta errealitate soziala haien espirituari eta helburuari funtsean erreparatuz (Kode Zibilarren 3. artikulua). Guraso bakarreko familia emakume immigrante batek eta ardurapean dituen bi seme-alabak osatzen dute; beste gurasoa Kolonbian bizi zen eta ez zuen mantenu-pentsiorik ordaintzen duela 12 urte banandu zirenetik. Pentsio hori finkatu izan balitz ere, guraso horrek nekez ordaindu ahalko luke. Inguruabar horien ondorioz sortutako ahuldade egoerak herri-administrazioen babesaren xede izan beharko luke, besteak beste, adingabearen interes nagusiaren printzipioan oinarrituz, Arartekoaren [2/2015 Gomendio Orokorrean](#) aztertu zen moduan. *Politika publikoetan adingabearen interes nagusia kontuan hartzeko betebeharra; bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman*¹ eta Enplegu eta Gizarte Politiketako [pobrezia eta desberdintasun sozialei buruzko inkestek](#) honako hau ondorioztatzen dutela: mota honetako familiak benetako pobrezia-egoeren ehuneko handieneko kolektiboen artean daudela.

Kexagileak adingabearen aitarekin harremanik ez izatea hainbat arrazoiengatik gerta daiteke, aitaren nahia barne. Edozein eskubide ekonomiko baliarazteko eskakizunak aurreko testuingurua eta errealitate soziala aintzat hartu behar ditu. Arartekoaren aburuz, hura ez betetzeak inguruabar horretan 24.794,03 € itzultzeko betebeharra dakarrela irizteak Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legearen 1. artikulua helburu nahiz espirituarekin ez dator bat: "...bazterkeria pertsonal, sozial eta laneko bazterkeria egoerak arintzeko, eta herritarren eskubide sozialak benetan gauzatzeko behar adina baliabide pertsonal, sozial edo ekonomikoak ez dituztenen gizarteratzea errazteko".

¹ www.ararteko.eus



Gainera, Arartekoaren ustez, herri-administrazioek jarduteko printzipioen aurkakoa da araudiaren interpretazio hori; herri-administrazioek jarduera bat egiteko esku-hatzeko printzipioen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 4. artikulua:

“Administrazio publikoek, haien eskumenen barruan dihardutela, eskubide indibidualak edo kolektiboak gauzatzea murrizten duten neurriak ezartzen badituzte edo jarduera bat egiteko betekizunak eskatzen badituzte, proportzionaltasun-printzipioa aplikatu beharko dute eta murrizketa txikiena eragiten duen neurria aukeratu beharko dute, interes publikoa babesteko beharrezkoa dela arrazoitu eta lortu nahi diren helburuetarako egokia dela justifikatu, betiere diskriminazioa eragiten duten tratu-desberdintasunak baztertuz. Halaber, lortutako eragin eta emaitzak ebaluatu beharko dituzte aldizka”.

Lanbidek ez du proportzionaltasunaren printzipioa aplikatu; izan ere, gurasoen aldetik mantenu-pentsioen bat jaso izan balu ere, harentzat semea zaintzeko laguntza oso beharrezkoa gertatzeaz gain, Lanbidek osatu egin beharko luke, harik eta araudian bermatutako gutxienera helden den arte; beraz, jasotako prestazio guztiak itzultzea desproporzionatua da guztiz.

4. Finean, kexagileak bi demanda judizial aurkeztu ditu eta gurasoen nahiz seme-alaben arteko neurriak finkatzen dituen epai judiziala aurkeztu du; beraz, eskatzaile eta prestazio ekonomikoen hartzaile gisa zituen betebeharrak bete ditu.

Aitaren bizilekua ez ezagutzeak ekarri du epaitegiak mantenu-pentsiorik ez ezartzea, baina ezin daiteke pentsa **ez jakite horrek lotura kausalik duenik eskubide ekonomiko bat baliarazteko betebeharrarekin**. Ildo horretan, semearen zaintzari lotuta amari betebeharrak eta erantzukizun guztiak esleitzeaz gain (bere ardurapean dago guztiz), mantenu-pentsioa eskuratzeko betetzea zailak diren beste betebeharrak batzuk ezartzen zaizkio.

Puntu honetan Arartekoak 2014ko abenduaren 18ko epaia aipatu du; bertan, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3 zenbakiko Epaitegiak diru-sarrerak bermatzeko errenta ukatu izana aztertu zuen, semearen aitari (leku ezezagunen batean dago) mantenu-pentsioa erreklamatzeari dagokionez mantenu-pentsioa ez baliarazteagatik. Epaitegiak betetzea ia ezinezkoa den eskakizun bat zela iritzi zuen.

3. oinarri juridikoa: *“El artículo 19.1 b) de la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, de Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social establece como obligación: “Las personas titulares de la renta de garantía de ingresos, cualquier que sea la modalidad e la prestación a la que accedan, adquirirán, al ejercer su*





derechos a dicha prestación económicas las siguientes obligaciones: (...)b) Hacer valer durante todo el periodo de duración de la prestación, todo derecho o prestación de contenido económico que le pudiera corresponder o que pudiera corresponde a cualquier de los miembros de la unidad e convivencia".

Es cierto que es este caso, y desde el año 2003 no consta que la recurrente haya intentado siquiera localizar al padre de su hijo, para reclamarle o requerir el pago de la pensión para el hijo de 360,61 euros, fijado en el convenio regulador. Ello no obstante, es cierto también que para la recurrente representa dicha misión, algo difícil, o casi imposible, pues se alega que el sujeto (...) se encuentra en paradero desconocido . En cualquier caso, la pensión por manutención del hijo es 360,61€, mientras que la renta de garantía de ingresos es superior a dicha cantidad.

En definitiva, no apreciamos que la causa invocada para denegarle la renta sea de recibo y ello porque se le exige el cumplimiento de una obligación casi imposible".

5. Lanbidek, diru-sarrerak bermatzeko errenta etenda mantentzeaz gaiz, diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarriaren titular izan zen aldian ordaindutako prestazioak itzultzeko eskatu dio, 24.794,03, guztira. Prestazio horiek itzultzeko betebeharra sortzen da, "*baldin eta bidegabe jaso direla egiaztatzen bada*", diru-sarrerak bermatzeko errenta arautzen duen maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 56. artikulua eta etxebizitzarako prestazio osagarria arautzen duen urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuaren 34. artikulua. Arartekoaren iritziz, espediente honetan ez da bete prestazioa erreklamatzeko justifikatzen duen aurreko lege-aurreikuspenetan ezarritakoa, ez baita egiaztatu bidegabe jaso denik. Kexagileak prestazioen titular izateko betekizunak betetzen zituen, eta eskubide ekonomikoa baliarazi zuen demanda judiziala aurkeztean; haren bidez, mantenu-pentsioa erreklamatu zuen eta, beraz, prestazioa berriz ordaintzen hasi behar zirela. Mantenu-pentsioa jaso izan balu ere, nekez gerta zitekeena, zenbateko hori diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarriarekin osatu beharko litzateke. Nolanahi ere, Lanbidek ordaindutako zenbateko osoa erreklamatu dio, eta ez soilik mantenu-pentsio gisa zegokion zenbatekoa. Arrazoi hori dela-eta, "kopuru osoa" itzultzeko betebeharra desproporcionatua dela azpimarratu da, eta herri-administrazio baten jarduna zuzentzen duten printzipioak ez zituela betetzen.

Azkenik, erakunde hau honi lotzen zaio: [diagnostiko-txostena](#) Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituena, 2017²; haiek,

² www.ararteko.eus



alde batetik, Lanbidek prestazioak erreklamatzeko prozeduraren aplikazioan hautemandako gabeziei buruzkoak dira, eta bestetik, segurtasun juridikoaren printzipioei, arbitrariotasuna galarazteari eta proportzionaltasunaz epaitzeari, bai eta aipatutako adingabearen interes nagusiari buruzkoak ere.

Horregatik guztiagatik, iradokizun hau egiten diogu Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Arartekoak, adierazitako irizpideetan oinarrituz, ebazpena berrikusteko gomendatzen du, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren etenaldiarekin jarraitzea erabakitzen duena, bai eta 24.794,03 € itzuli behar dituela adierazten duen ebazpena berrikusteko ere.

